

Aiherra

Bi heriotze

Aste huntan 2 heriotze izan ditugu herrian: Jauberriko Beñadin Dunate apeza (80 urte) eta Zelaiko Léon Etchevers (79 urte).

- **Beñadin Dunate:** 80 urte egin beharrak zituen agorrilaren 15ean. Denak harritu dituen berria fite hedatu da, Beñadin Dunate traktur baten gainera sartu zela eta kolpean hil, Azkarate herrian. Nork ez zuen ezagutzen Jauberriko misionesta? Zernahi tokitan ibilia baitzen, denbora gehiena Afrikan iraganik, Mali eskualdean. Apez euskalduna, fededuna, kartsua, bizia eta maitagarriaren oroitzapena uzten du. Kanboko parropiarentzat zerbitzu egiten baitzuen, Zuraidoko apezetxean egonez, Kanboko eliza ttipiegian iragan dira honen ehorzketak, apez andana bat bildua zelarik aldare inguruan, Baionako apezpikua buru. Euskal Herri guzitik bai eta Biarnotik etorri da jende oste gaitza Beñadin zenari azken agur baten egiteko. Bururatzean, Michel Sanzberro Zuraidoko auzapezak, J-Jacques Lasserre Departamenduko lehendakari nagusiak bai eta Ximun Garat iloba ttipiak, bakoitzak beren hitzekin erakutsi diete beren atxikimendua, publikoak eskuzartaka bururatu duelarik Ximunen lekukotasuna. Meza ondotik, gorputza Aiherrako hilobira eraman dute. Gure doluminak familiari.



Beñadin Dunate

- **Léon Etchevers:** 79 urte zituen, eta barkatzen ez duen eritasunarekin borrokaturik, azkenean pausatuta da. Léon zenaren ehorzketak Aiherrako elizan iragan dira joan den larunbat arratsaldean. Xipri meza emaileak bere predikuan oroitarazi dauku Léon sortu zen biharamunean, aita hil zitzaioa ama bakarrik utziz hiru haurrekin. 12 urtetan joan zen Etxebestera mutil ttipi gisa, laborantzan goiz goiz lanean hasiz. Zelaiko etxaldea ttipiegia baitzen laborantzatik bizitzeko, zapetagintzan eta takoian lan egin zuen Hazparneko lantegietan. Uzten dituen Léonie emazteari, J-Pierre eta Monique bi seme-alaberi, arrahaureri, Jules eta Felixi anai-arreberi, hauen familiari, gure dolumin bizenak.

Otto-ri

(Argitu iloba ttipiak idatzia eta
Ximunek meza hondarrean irakurtua)

Otto apeza, Otto Beñadin, ottomobile...
Otto bizia, ernea, eta baliosa.

Familiako zutabea,
Gure artean maiz agertzen den irri zabala
Gure artean fite eskapatzen dena.
Nork daki nor edo zeren gana.

Zuretzat desberdintasunik ez da,
Gizaki bakotxa zure aneia baita.

Eta zer ote da guretzat aneia ?
Baizik eta mugagabeko barkamendu,
sustengu eta amodioa merexi duena.
Hori izan da, otto, deneri egin duzun eskaintza.

Fede sakon batez pizturik, eraman dituzu hainbat hizketa.
Bainan hitzek ez baitute deus balio ekintzarik ez bada,
Biak beti bateratzea duzu hautatu, eta alabainan lortu.

Olerki hunen bidez jakin ezazu otto,
Guretzat duzun balio handia.
Eta hain estimatzen duzun bezala,
Familiako kantari eta musikariek
Segituko dugula pozik gure bazkarien alaitzen,
Txalo ukaldi batez « Biba ! » airos batekin zenion bezala,
Musika gauza ederra baita.

Ziren eta izan zirenarentzat eskerrak,
Ez adiorik otto !